

Elkartasun Jaialdian parte hartzera deitu dute ohar baten bitartez hamar Euskal Preso Politikok

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 30/09/2024

Preso politikoek adierazi dutenez “kanpotik zein barrutik indarrak baturik, adore eta zuhurtasun gehiagoz jarraituko dugu Euskal Herri Langilearen independentzia eta sozialismora bidean”

2023ko abenduaren 30ean Euskal Preso Politikoei elkartasuna adierazteko hainbat pertsonak **Zaballako espetxera martxa egin zuten**, ASKE antolakundeak deituta. Egun horretan, mobilizatu ziren pertsonak jazarpena jasan zuten ertzaintzaren aldetik eta sei hilabete beranduago, Eusko Jaurlaritzak 128 pertsonen 1.200 euroko isun bana ezarri die mozal legea aplikatuz, **osotara 153.600€-ko zigor ekonomikoa eskatuz**.

Gertakari hauek salatzeke eta errepresio ekonomikoari aurre egiteko **urriaren 5ean Errekaleorren Elkartasun Jaialdia antolatu du ASKE-k** eta, antolakunde antirrepresiboak jakinarazi duenez, Elkartasun Jaialdian parte hartzera deitu dute ohar honen bitartez hamar Euskal Preso Politikok:

lazko 30ean ASKE deituta aldarria ekarri zuten Zaballako espetxera dozenaka euskal herritarrek. Bertan bahituta gauzkatzen Euskal Preso Politikokoontzat pozgarria bezain pizgarria izan zen euren oihuak eta suzirien danbatekoak hain gertu sentitzea.

Orduan gelditu ezin izan zutena gerora zigortu dute kasko gorriek, elkartasuna 128 isunekin ito nahirik.

Elkartasuna ez da delitua, askatasunerako bidea baizik.

Horregatik darabilte errepresioa, Euskal Herri Langileak amnistia aldarrikatzea nahiz kontraboterea eratzea eragotzi asmo dutelako. Ez gaituzte geldituko. Kanpotik zein barrutik indarrak baturik, adore eta zuhurtasun gehiagoz jarraituko dugu Euskal Herri Langilearen independentzia eta sozialismora bidean.

Idazki hau sinatzen dugun Euskal Preso Politikook gure elkartasuna adierazi nahi diegu zigortutako 128 kideei, eta Urriaren 5ean euren alde Gasteizko Errekaleorren antolatutako den Elkartasun Jaialdirako deialdia luzatu nahi diogu baita Euskal Herri Langileari.

ELKARTASUNA EZ DA DELITUA!

EUSKAL HERRIAK AMNISTIA!

Zaballatik, 2024ko Iraila

Aitor Cotano Sinde, Andoni Goikoetxea Gabirondo, Fernando Garcia Jodra, Garikoitz Etxeberría Goikoetxea, Iñaki Krutxaga Elezkano, Irantzu Gallastegi Sodupe, Jesus Mari Etxeberría Garaikoetxea, Leixuri Gallastegi Sodupe, Mikel San Sebastian Gaztelumendi eta

Orkatz Gallastegi Sodupe.

<https://eh.lahaine.org/elkartasun-jaialdian-parte-hartzera-deitu>